# SARAUBE BERRIAK

*Aiarako Udalaren aldizkaria #91*
2019ko MAIATZA / MAYO



# Artesanía, ganadería, producto local, actividades infantiles y por la igualdad... un programa completo para San Isidro

El 15 de mayo, miércoles, se celebrará una nueva edición de la Feria de San Isidro en Respaldiza, que, como siempre, estará unida al sector primario, pero añadirá otros elementos que la actualiza en todos los sentidos. Así, a las 8:00 comenzará el V. Concurso de Ganado de Raza Pirenaica.

A las 9:30 llegará el turno de la exposición de ganado (vacas, ovejas, cabras, burros, gallinas autóctonas, conejos gigantes...), productos agroalimentarios, artesanía, maquinaria y makilas. A las 12:00 arrancará la yinkana infantil en el centro social. A la misma hora habrá también misa y a las 13:00 se podrán degustar pintxos realizados con producto local en algunos de los establecimientos de la localidad. Hacia las 13:30, en cambio, será el deporte rural el que adquiera todo el protagonismo.

*Maiatzaren 15ean ospatuko dute San Isidro Feria Arespalditzan eta abereek ez ezik, bestelako eskaintzek ere izango dute protagonismo osoa. Izan ere, gastronomia, artisauak, erakusketak, umeentzako gymkana eta herri kirolak ere egongo dira.*

## Berdintasuna San Isidron ere

San Isidro egunean, genero ikuspegia txertatu dute egitarauko ekintza guztietan. Gainera, bi jarduera antolatu dira Uaga sindikatuaren laguntzarekin, emakumeen lana bistaratu eta aitortzeko. Batetik, goizetik, Arabako emakume nekazariei eta abeltzainei buruzko argazki erakusketa egongo da zentro sozialean. Bestetik, arratsaldean, 18:00etan, mahai ingurua egingo da lehen sektoreko Aiarako emakumeekin, egiten duten lana ezagutzeko. Giro informalean egingo da, kafe bat hartzen, eta jende oro dago gonbidatuta.

## La Igualdad en San Isidro

La perspectiva de género está presente en todas las actividades de San Isidro, pero, además, se han organizado dos actividades con el sindicato agrario Uaga para visibilizar y reconocer el trabajo de la mujer. Por un lado, a la mañana, habrá una exposición sobre su importancia en el sector primario en Araba en el Centro Social. Por otro, a las 18:00 se celebrará una mesa redonda con mujeres de Ayala de ese ámbito para dar a conocer su trabajo en un ambiente distendido.

## Bola jokoa Kexaan San Isidron

San Isidro ospatzeko hitzordu gehiago egongo dira udalerrian, ez bakarrik feria. Zentzu horretan, Aiarako kirola praktikatzeko gonbidatuko dute jendea: bola jokoa eta, zehazki, aiararar erara. Horrela, Aiarako Bolatoki Klubak deialdiak egin ditu bi egunez horretan aritzeko. Hitzorduak izango dira Kexaan maiatzaren 18an eta 19an. Zehazki, hilaren 18a larunbata da eta arratsaldez jokatuko dute, 18:00etatik 20:00ak arte, hain zuzen. Hurrengo egunean, igandean, ordea, goizean egingo dute saioa, 11:30etatik 13:00ak arte.

# Autodefentsa feministari buruzko hausnarketa kolektiboa egiteko deia



Maiatzaren 11n, larunbata, Autodefentsa Feministari buruzko I. Topaketa antolatu du Aiarako Kuadrillak, Aiaraldeko mugimendu feministaren laguntzarekin. Jardueraren helburua da kontzeptu horri buruzko hausnarketa egitea, banakako eta taldeko jabekuntzaren tresna delako.

Orain arte, gaiaren inguruko tailerrak antolatu eta kanpainak egin izan dira. Bai mugimendu feministak, bai erakundeek, egiten jarraituko dute, baina hausnarketa egiteko premia ikusi da, zer den eta zer ez den zehazteko, indarkeria matxista aztertzeko, ahalduntza nola ulertzen den zalantzan jartzeko, eta estrategia bateratuak pentsatzeko.

Horretarako, egitaraua 10:00etan hasiko da, autodefentsa feministari buruzko hitzaldiarekin. Maitena Monroyk emango du, aditua baita eta ibilbide luzea egin du. 11:00etan, Aiaraldeko esperientziak landuko dituzte Mugimendu Feministak alde batetik eta erakundeek bestetik. 12:30ean, eztabaida gauzatuko dute talde txikiak osatuta. Ondoren, 13:30ean, ekarpenak partekatzeari ekingo diote eta ondorioak jorratuko dituzte Maitena Monroyrekin.

*El 11 de mayo en el Casino de Laudio a partir de las 10:00 tendrá lugar, con el impulso de la Cuadrilla de Ayala, una jornada de reflexión acerca de la autodefensa feminista. Las actividades comenzarán con una charla de Maitena Monroy, especialista con un dilatado recorrido en este ámbito. También se expondrán distintas experiencias de Aiaraldea, tanto desde el punto de vista de las instituciones como del propio movimiento feminista. Finalmente, se trabajará en pequeños grupos antes de la puesta en común.*

Amaitzeko, nabarmendu behar da Topaketa egiteko beharra jasota dagoela indarkeria matxistaren aurkako Planean, horri aurre egiteko estrategia pentsatu eta bateratzeko eragile guztien artean. Laudion izango da, Kasinoan. 10:00etatik 14:00etara. Aldez aurretik abisatuta, garraio eta haurtzaindegi zerbitzua egongo dira. Informazio gehiago eskuratzeko: cayala.miren@ayto.araba.eus edo 686 587 889 telefono zenbakia.

# Emakumeen gela ekintzaz blai



Maiatzaren 17an LGTBIQ+ fobiaren aurkako munduko eguna izango da eta ekainaren 28an, aldiz, genero identitate eta sexu aniztasunaren aldekoa. Hori dela eta, urtero bezala, sexualitate eta genero anitzen aldeko kanpaina jarriko dute abian Aiaran.

Horren eduki guztia zehazteko, Aiara Berdintasunaren Aldeko Foroa egingo dute maiatzaren 3an, ostirala, 17:00etan, Emakumeen Gelan. Herritar eta elkarte guztiak animatu nahi ditu Aiarako Udalak batzarrean parte hartzera ildo guztiak adosteko.

Era berean, gogoratu beharra dago jadanik indarrean dagoela Emakumeen Gelako liburutegi zerbitzua. Liburuen eta bideoen zerrenda udal weborrialdean dago eta parada ematen du tokiko erakundeak horiek maileguan hartzeko. Berez, mota ugariko materialen eskaintza dago: umeentzako ipuinak, dibulgaziorako saiakerak, eleberriak, baita tokiko zenbait eduki. Horrez gain, ikus-entzunezko ekoizpen gutxi batzuk ere badaude. Informazioa edo eskaria egin nahi izanez gero, cayala.miren@ayto.araba.eus posta elektronikora idazteko aukera dago.

Electricidad Albizua, S.L.
Tel. 608 87 05 13 - 945 89 07 02
Aldaiturriaga poligonoa, E2
AMURRIO

AURELIO
www.aurelio.es
VIKING
STIHL
Reparación y Venta

Laudioko Industrialdea, Pab 4-6
01400 LAUDIO
94 672 36 58

# “Aiara Berde eta Garbi” logra su objetivo y duplica la recogida orgánica




En noviembre el Ayuntamiento lanzó el reto “Aiara Berde eta Garbi” para incrementar en al menos un 25% la recogida selectiva de la materia orgánica en el plazo de 5 meses. Para ello repartió entre las viviendas de Luiaondo y Arespalditza materiales e información sobre el uso del contenedor marrón. La meta se ha superado con éxito y, con 22 toneladas recogidas, se ha duplicado holgadamente la cantidad obtenida en el mismo periodo del año anterior. Es un avance importante, pero hay que seguir mejorando, ya que más del 50% de la bolsa de basura es materia orgánica. Con todo lo anterior, durante del mes de mayo se celebrará el sorteo de las 15 cestas de productos de la comarca entre las familias adheridas al programa.

*Udalak azaroan bultzatu zuen “Aiara Berde eta Garbi” kanpaina, eta horren helburua zen 5 hilabetetan organikoaren bilketa %25ean handitzea. Aiarako herritarrek xedea bete dute eta 22 tona batu dituzte, lortu dute iazko kopurua bikoiztea, baina oraindik aukera dago hori nabarmen hobetzeko. Maiatzean ekingo diote zozketatzeari eskualdeko produzktuez osatutako 15 saskiak egitasmoan parte hartu duten familien artean.*

# “Itoitz” urpeko ipuinak Izorian



Igande Arratsaldeak Familian programaren saio berria egingo dute maiatzaren 19an Izoriako zentro sozialean. Euskararen erabilera eta umeek eta helduek denbora elkarrekin igarotzea da egitasmoaren helburua. Berez, 17:00etan hasiko da eta “Itoitz” urpeko ipuinak ikuskizuna eskainiko dute Amaia Elizagoienek eta Irati Celestinok. Lehenengoak bere gain hartuko du istorioak kontatzeko ardura eta bigarrenak gitarra joko du. Izan ere, euren espektakulua oinarritzen da ipuin musikatuetan. Itoitzeko urtegiaren eraikuntzaren ondorioz gertatutakoa du hizpide lanak.

Horren ostean, 18:00etan, askaria hartuko dute eta, amaitzeko, 18:30ean eskulanak prestatuko dute.

# Ekainaren bukaeran Ondarretako udalekuetan izena emateko epea maiatzaren 17an agortuko da

Ondarretan udalekuak egingo ditu Aiarako Udalak ekainaren 25etik 28ra arte eta izena emateko aukera egongo da maiatzaren 17ra arte. 2005 eta 2012 urteen artean jaiotako umeek parte hartu ahal izango dute. Udalerrian erroldatuek izango dute lehentasuna, eta 20 leku, gutxienez, bete beharko dira. Horietatik 12 haur izango dira Aiarakoak. Maiatzaren 20an deituko diete inskripzioa bete dutenei eta galdetuko diete parte hartu nahi duten programan, baldin eta udalarekin ez badute zorrik. Interesdunek baiezkoa emanez gero, matrikula erdia kobratzeari ekingo diote hurrengo bi egunetan, eta gainerakoa ekainaren 6an eta 7an. Aiaran erroldа dutenek 100 euro ordaindu beharko dituzte eta kanpokoek, aldiz, 120 euro. Printzipioz, dirua ez da itzuliko, eta informazio guztia topatu daiteke www.aiarakoudala.eus atarian.


reinventando / los seguros
Agencia General en Amurrio
José Luis Ortiz de Zárate
Especialistas en Seguros de:
**Vida - Autónomos - Empresas**
- Seguros de responsabilidad civil
- Seguros de hogar
- Seguros de salud
C/Iturralde, 1 01470 · AMURRIO Tfno.: 945890450 / Fax: 945890001
aiala@agencia.axa-seguros.es



# Cerebro abdominal



Dentro de las aulas dirigidas a las personas mayores, el médico geriatra Fernando Gómez-Busto ofrecerá una conferencia cuyo título será “El cerebro abdominal, nuestro 2° cerebro”. Será el 9 de mayo a las 17:00 en la Escuela Artística de Llanteno y el especialista explicará que por cada 10 neuronas cerebrales, existe 1 en el aparato digestivo. Sustancias tan importantes en la transmisión nerviosa y que influyen en el estado de ánimo como la serotonina o dopamina, son producidas en gran medida por el aparato digestivo. Además hay 10 microbios por cada célula humana y el 95% de ellos están en el tubo digestivo.

# Música y danza

Aiara va a acoger dos recitales de música y danza durante el mes de mayo. El primero de ellos tendrá lugar el 16, jueves, a las 17:00 en la Escuela Artística de Llanteno. Será en el contexto de las aulas de personas mayores, no en vano el grupo está compuesto por músicos experimentados y de cierta edad que interpretarán canciones añejas.

Por otra parte, dos días después, el 18 de mayo, sábado, la Fundación Vital traerá a Respaldiza un grupo de dantzaris que actuarán a las 18:00.

# Agenda

**3**
**BILERA**
**Aiara Berdintasunaren Alde Foroa.**
*Emakumeen Gela, Respaldiza 17:00*

**4**
**SAN PRUDENCIO**
**Presentación del mural cerámico y charla de Jose Luis Urrutia.**
*Escuelas artísticas, Llanteno 19:30*

**5**
**SAN PRUDENTZIO JAIAK**
**IV. Aiarako Mendi Duatloia.**
*Arespaldiza 11:00*

**5**
**FIESTAS DE ERBI**
**Misa, pintxos y trikiti.**
*Erbi 13:00*

**5**
**SAN PRUDENCIOS**
**Comida de celebración del día de las personas mayores y baile.**
*Respaldiza 14:30*

**12**
**FIESTAS DE ETXEGOIEN**
**Misa, pintxos y concierto de alboka, trikiti y pandero.**
*Etxegoien 11:00*

**15**
**SAN ISIDRO FERIA**
**Animalien erakusketa, azoka, gymkana, herri kirolak...**
*Arespaldiza 08:00*

**18**
**SAN ISIDRO**
**Mesa redonda sobre mujeres y sector primario.**
*Centro social, Respaldiza 18:00*

**18**
**SAN ISIDRO**
**Tirada de bolos.**
*Bolera, Quejana 18:00*

**19**
**SAN ISIDRO**
**Bola jaurtiketa.**
*Bolatokia, Kexaa 11:30*

**19**
**IGANDE ARRATSALDEAK**
**“Itoitz” urpeko ipuinak, askaria eta eskulanak.**
*Zentro soziala, Izoria 17:00*

**21**
**FIESTAS DE AÑES**
**Misa y pintxos.**
*Añes 13:00*

# Agenda 21 Aiaran bertan

Apirilean eskolako Agenda 21 proiektuaren barruko irteerak gauzatu dira. Besteak beste, Izoriako gaztandegira eta Añeseko errotara bisitak egin dituzte Etxaurren Ikastolako ikasleek aurtengo gaia jorratzeko; ondarea, alegia. Maiatzaren 14an Amurrioko Reforrean izango den eskualdeko foroan parte hartuko dute bukatzeko.



***Whatsapp municipal***

***Si quieres informarte de la actualidad de Aiara, súmate a las más de 290 personas que ya están apuntadas en el número de WhatsApp 615 788 146.***